Justin Bieberren showa

Gazteako GU saioan hizpide izan dute Justin Bieberren emanaldia Coachella Valley musika-jaialdian; izan ere, ikuskizunak polemika piztu du jarraitzaileen artean.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Zeure kabuz, Justin Bieberri buruzko informazioa bilatu.**
- **Irratsaioa entzun eta ulertu.**
- **Erakusle indartuak nola erabili ikasi: *horixe bera!***
- **Gaiari buruzko solasaldia egin, rol bat hartuta.**
- **Zeure benetako iritzia eman, gaiari buruzko iritzi-artikulua idatzita.**



Justin Bieber (berak argitaratua)

Entzun aurretik

BAKARKA

1. Zer dakizu?

Hau etxean egin dezakezu. Sekuentzia honetan Justin Bieber eta Coachella Valley jaialdia izango ditugu hizpide. Baina, hasi aurretik, erantzun beheko galderei. Behar baduzu, bilatu Interneten galderen erantzunak, eta jaso esanguratsuenak iruditu zaizkizun datuak, ikaskideekin partekatzeko.

- **Zer dakizu Justin Bieber abeslariari buruz?**

_____

_____

_____

_____

- **Zer dakizu Coachella Valley musika-jaialdiari buruz?**

_____

_____

_____

Hurrengo eskola-egunean, partekatu informazioa ikaskideekin.

Entzun bitartean

BAKARKA

2. Zer esan dute?

Entzun, Gazteako *GU* saioan Justin Bieberren Coachella Valley musika-jaialdiko emanaldiaz zer esan duten, eta aukeratu erantzun zuzenak.

guau gure audioa

Justin Bieberren showa

1. Irrati-esatariaren ustez, Coachellako musika-jaialdia...

a) ez da Estatu Batuetako garrantzitsuena, baina bai herrikoiena.
b) Estatu Batuetako garrantzitsuenetakoa da, baita mundukoa ere.
c) Estatu Batuetan oso ospetsua da, nahiz eta mundu-mailan jaialdi handiagoak egon.

2. Hizpide duten edizioan...

a) inoiz baino izar gehiago elkartu dira.
b) izar nagusietariko bat Justin Bieber izan da.
c) jaialdiak kritika asko jaso ditu: antolakuntzak “egurra jaso” du.

3. Zer leporatu diote Justin Bieberri haren aurkariek?

a) Janzkera ez dela egokia izan.
b) Gaizki kantatu duela.
c) Ez duela eman espero zen neurriko ikuskizuna.

4. Nolakoa izan da ikuskizuna?

a) Soila: eszenatoki huts batean, pantaila bat, ordenagailua eta kantaria eserita.
b) Janzkera sinplea, baina dantzariak eta kantariaren showa ez dira falta izan.
c) Agertoki ikusgarrian, kantaria, pare bat dantzari eta ordenagailua.

5. Nola kantatu du?

a) Youtubeko irudiak eta ahotsa soilik erabiliz, “a capella”.
b) “Playback” egin du bere Youtubeko bideoak entzuten ziren bitartean.
c) Bere kantak Youtubeko bideoen gainetik kantatu ditu, karaoke moduan.

6. Zertaz kexatu zen Justin Bieber zuzenekoan?

a) Publikoaren erantzun apalaz.
b) Wifiaren kalitate eskasaz.
c) Soinuaren kalitate eskasaz.

7. Katy Perry publikoaren artean zegoen; zer esan zuen?

a) Pozten zela kontzertu hori galdu ez izanaz.
b) Pozten zela, Justinek *Youtube Premium* ordaintzeko detailea izan zuelako.
c) Pozten zela iragarkiak egoteaz, horrek kontzertua arinagoa egiten zuelako.

8. Zer esaten du irratsaioaren amaieran esatariak?

a) Oso show aproposa eta zentzuzkoa eskaini zuela, bere estiloarekin bat!
b) Zirku baten modukoa izan zela, eta jendea xaxatzeko modu hobeak daudela.
c) Jaialdiko emanaldirik onena izan zela, dotore-dotorea.

Erantzun zuzenak 7. orrialdean daude.

Ikusi ondoren

GRAMATIKA- AZALPENAK

HORIXE BERA! (ERAKUSLE INDARTUAK)

Irrati-esatariak hauxe esan du: *"Coachella jaialdia abiatu da; lehendabiziko asteburua egin dute, eta, hurrengo asteburuan, asteburu **horixe bera** errepikatuko dute, artista horiekin guztiekin, eta kartel igual-igualarekin".*

Ez da gauza bera esatea: *Hori!*, *Horixe!* edo *Horixe bera!* Azken horrek indar handiagoa dauka! Bi bide nagusi ditugu erakusleei (*hau/hori/hura...*) indarra emateko: *-xe* atzizkia eta *ber-* aurrizkia: *hauxe*, *berau* eta abar.

1. *-xe* atzizkia

- *Hau**xe** bai kontzertu ona! Hori**xe** esan nahi nuen! Hura**xe** ikusi nuen!*

Hauexek ditugu aldaera nagusiak: *hauxe, horixe, huraxe; honexek, horrexek, harexek; honexen, horrexen, harexen.*
-xe atzizkia, honela ere azal daiteke: *horrexetan/horretantxe, honexetara/honetaraxe; horrexetara/horretaraxe, hartantxe, bertantxe...*
Hona hemen adibide gehiago: *hementxe, hortxe, hantxe; honaxe, horraxe, haraxe; honelaxe, horrelaxe, halaxe; honelakoxe, horrelakoxe...*
***Noski*-ren baliokide** diren esapideetan ere erabil daiteke:

- *Hartu al dituzu kontzerturako sarrerak? **Bai horixe!** / **Horixe baietz!***

2. *ber-* aurrizkia:

Hauexek ditugu aldaera nagusiak: *berau/berori/bera; berauek/beroriek/beraiek; beronek/berorrek/berak...*

- *Hau berau erosi dut.*
- *Hori berori/bera esan nahi nuen nik!*

3. Esaldiei indarra ematen

BAKARKA

Ulertu duzu? Bada, orain eman indarra beheko esaldiei, adibidean bezala.

Adibidea: Nik **hori** *horixe (bera)* egingo banu, ez lidakete ezer ordainduko.

1. **Hor** _____ egon nintzen, bi orduz, sarrerak lortzeko, klik eta klik.
2. Garagardo **hau** _____ ekarri dizut.
3. Kantariak **hori** _____ esan zuen.
4. **Han** _____ ikusi nuen zure laguna.
5. **Horrek** _____ ematen dit amorrua!
6. **Horrelakoa** _____ da bizitza!

Erantzunak 7. orrialdean daude.

TALDEAN

4. Eztabaida, rol-jolasa

Irakurri egoera, eta, binaka, aukeratu rola. Ikusi Justin Bieber Coachellan (eskuineko bideoa) eta ondoren, hartu tarte bat zer esan eta nola pentsatzeko. Amaitzeko, antzeztu elkarrizketak.



Justin Bieber (Youtube)

Egoera:

Lagun bat eta zeu taberna bateko terrazan zaudete, zerbait hartzen. Eta, halako batean, lagunak zera galdetu dizu: *Entzun duzu Justin Bieberren azkena? Coachella Valley musika-jaialdi erraldoian gertatutakoa?* Eskuko telefonoan haren bideo bat ikusi duzue. Eta, hortxe piztu da eztabaida.

Justin Bieber Coachellan (2026)

Rolak:

A ikaslea: Justin Bieberren zale amorratua zara. Coachellan egindakoa ondo iruditzen zaizu, haren izatearekin oso koherentea. Artistek jendea xaxatu behar dute; zertarako da, bestela, artea? Ez duzu ulertzen zenbaiten haserrea.

B ikaslea: Justin Bieberren zenbait kanta gustatzen zaizkizu, baina Coachella Valley jaialdiko emanaldia lotsagarria iruditzen zaizu, adarjotzea. Zure ustez, ospetsu izateak ez die ematen artistei edozer egiteko lizentzia. Hamar milioi dolar kobratuta, zerbait gehiago eman behar dela uste duzu.

Zalantzarik gabe, Coachella jaialdiak momentuko artista entzutetsuenak biltzen ditu; aurten, Justin Bieber izan da izen nagusietariko bat.

Eskerrak, behintzat, Youtube Premium ordaintzen duen!

Pentsatu zer esango duzun, eta arriskatu: erabili baliabide berriak!

BAKARKA

5. Justin Bieberren makro-ikuskizun minimalista

Hau etxean egin dezakezu. Irakurri egoera, eta idatzi iritzi-artikulu bat (200 hitz inguru). Amaitutakoan, eman irakasleari zuzentzeko.

Egoera:

Coachella Valley musika-jaialdi erraldoian, Justin Bieberrek egindakoak eman dizu zer pentsatua. Horren harira, egunkarian iritzi-artikulu bat idaztea erabaki duzu. Makro-ikuskizunen garai honetan, hausnarketa egin behar dugula uste duzu. Hauexek dira burura etorri zaizkizun galderetako batzuk:

- Makro-ikuskizunek zer sustatzen dute?
- Zein da musikaren funtzioa gizarte honetan?
- Nolako musika-emanaldiak behar ditugu?
- Artista ospetsu izateak ematen al die edozer egiteko baimena?
- Hori Euskal Herrira ekarrita, zer onartu beharko genuke, eta zer ez?



Justin Bieber (berak publikatua)

BAKARKA

ERANTZUNAK

2. Zer esan dute?

1- b; 2- b; 3- c; 4- a; 5- c; 6- b; 7- b; 8- a

3. Esaldiei indarra ematen

1. **Hortxe (bertan)** egon nintzen, bi orduz, sarrerak lortzeko, klik eta klik.
2. Garagardo **hauxe (bera/berau)** ekarri dizut.
3. Kantariak **horixe (bera/berori)** esan zuen.
4. **Hantxe (bertan)** ikusi nuen zure laguna.
5. **Horrexek (berak/berorrek)** ematen dit amorrua!
6. **Horrelakoxea** da bizitza!

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Mundu-mailako potoloena. Mundu-mailako lodiena. Testuinguru honetan, handiena.
Itxurakeria dezente. Itxurakeria handia, nabarmena.
Sekulako show batekin. Ikuskizun bikain batekin.
Garai korapilatsua. Garai zaila, garai txarra.
Minimalismoa. Joera artistikoa, oinarrizko-oinarrizkoari garrantzia ematen diona, apainketa oro kanpo utzita.
Jendea xaxatzeko nahi hori. Jendea zirikatzeko, probokatzeko nahi hori.

TRANSKRIPZIOA

Ibon Fernandez: Eta, begira, hain justu, joan den asteburuan ateak zabaldu ditu Estatu Batuetako musika-jaialdi garrantzitsuenak, eta esango nuke mundu-mailako potoloena ere badela. Eta, gainera, jaialdi handi honekin zabaltzen da udaberri- eta uda-parteko musika-festibalen zirkuitu interesgarri hori. Coachella jaialdia abiatu da; asteburu honetan, lehendabiziko asteburua egin dute, eta, hurrengo asteburuan, datorren honetan, asteburu horixe bera errepikatuko dute, artista horiekin guztiekin, eta kartel igual-igualarekin.
Alain Perez: Bai. Egia da, bueno, postureo (itxurakeria) dezente egon ohi da horrelako jaialdi batean, baina, zalantzarik gabe, nik uste dut Coachella momentuko artista entzutetsuenak biltzen dituen jaialdia dela; eta, aurten, ba, izen nagusienetariko (nagusietariko) bat Justin Bieberrena izan da, ze, bueno, artista kanadarrak, ba, ez baldin badakizue, garai korapilatsua pasa du; eta esan beharra dago bere zuzenekoa izan dela, gainera, aurtengo edizioko polemikoena, zalantzarik gabe, kritika ugari jaso dituelako. Egia da, ba, emanaldia... esan dezakegu oso minimalista izan dela, ez?, ze...
Ibon Fernandez: Gustuko dut deskribatzeko modua!
Alain Perez: Ez dakit. O sea (Alegia)...

Ibon Fernandez: Minimalismoa. Horrekin ze polit geratzen den deskribapena.
Alain Perez: ... zerbait ona esateagatik, ze, zuek irudikatzeko, ez baduzue bere kontzertua ikusi, edo irudiak ez badituzue ikusi, eszenatoki huts batera igo zen larunbatean Justin Bieber, sudadera (kirol-jertse) batekin eta galtza motz batzuekin, eta kontzertuan abestu zituen 30 kantak abestu zituen eserita, MacBook baten aurrean. Hau da, ba, gu ohituta gaude maila honetako artistak sekulako show batekin ikustera, eta egia da, ba, hortik dezente aldentzen zela. Ez dakit onerako edo txarrerako.
Ibon Fernandez: Gainera, gogoratu behar dugu, datu bezala (datua emateko), Justin Bieberrena izan dela kontzerturik garestiena, bera kontratatzerako (kontratatzeko) garaian, Coachellaren historian. Beraz, imajinatu: sekulako dirutza ordaindu diotela, eta, gero, bera hor agertzen da bere MacBook horrekin, Youtube zabaldu eta bere kantak Youtubeko bideoen gainetik abesteko.
Alain Perez: Klaro (Bai, ba), zuk aipatu duzu Youtube. Askok esango dute "Youtube festa" antolatu zuela Justin Bieberrek; ze, hori, momentu batean, bere kanta zaharren bideoklipak zuzenean bilatzen eta erreproduzitzen hasi zen, hor, bueno, Coachellan, Indion, Kalifornian, gainetik abesten zituen bitartean, ba, hori, karaoke moduan, ez?, zuk esan duzun bezala, Ibon. Momenturen batean, bera ere kexatu zen, Justin Bieber bera, wifia ez zihoalako tokatzen zen bezala, ze, klaro, bera hor zebilen zuzenean kantak bilatzen, eta, ba, behar zena (zen) baino gehiago tardatzen zuten horiek kargatzen; eta oso biral egin da, baita, publikoan Katy Perry zegoela Justin Bieberren zuzenekoa ikusten, eta Katy Perry publiko artetik, ba, bideo batean entzuten da esanez (esaten): "Eskerrak, gutxienez (behintzat), Youtube Premium ordaintzen duen, ze ez ditut iragarkiak tragatu nahi"...
Ibon Fernandez: Oso ondo.
Alain Perez: ... hori da Katyk esan zuena.
Ibon Fernandez: Bai. Nik esan beharra daukat Justin Bieberrek ezin zuela hobeto egin Coachellako showa; egia da merkea dela, egia da ordenagailu bat zegoela, egia da boteprontoan zirku bat ematen duela honek guztiak, baina zentzua dauka, ze bera Youtuben ezagutu genuen, Youtubeko bideoetan, eta berak egin duena izan da bere zirkulu hori itxi, Youtube bera bere kontzertura ekarriz, eta Youtubeko bideoen gainean abestuz. Beraz, nik uste dut bere burua omentzeko modu oso aproposa dela; eta, aldi berean, berak badauka jendea xaxatzeko nahi hori beti, eta agertoki gainetik mundu guztia troleatzen zegoen (ari zen) momentu horretan bertan, eta dotorezia osoz esango nuke.
Alain Perez: Hombre! (Tira!)...